



hernani
burujabe

2024 memoria

hernani burujabe 2024 memoria

hitzaurrea

elikadura

energia

zaintza

bioaniztasuna

moneta

gobernu ekosistema

planifikazio prozesua

burujabetza komunikatuz

aurrera begira



hitzaurrea

Hernani Burujabe Trantsizio Ekosoziala helburu duen herri proiektu bat da, eta horretarako, herriko ehun ekonomikoa, soziala eta administratiboa barnebiltzen ditu elkarlanean oinarritzen den planifikaziorako prozesu demokratikoaren baitan.

Egungo eredu ekonomiko xahutzaile eta jasangaitzaren aurrean, alternatiba bizigarri, iraunkor eta parekide bat martxan jarri nahi du Hernani Burujabek, justizia soziala, ekologikoa eta planifikazio publiko-komunitarioa erabiliz.

Hernanin martxan den egitasmoak burujabetza materialetan sakondu nahi du, bizitzarako estrategikoak diren sektore sozioekonomikoak merkatu logikatik askatuz eta herritarren beharren zerbitzura jarritz.

2024 Hernani Burujaben lantzen diren hainbat sektoreetako proiektuen kontsolidazio urtea izan dela esan dezakegu: elikadura, energia, moneta, zaintza...

Aurreko urteetan "egositako" hainbat proiektu emaitzak ematen hasi baitira, hain zuzen ere.

Bestetik, gobernu ekosistema eta planifikazio publiko-komunitarioari dagokionez, salto kualitatiboa eman da: batetik, Burujabetzen Kontseilua martxan jarri da eta bestetik, parte hartzeko mekanismo berriak gauzatu dira planifikazio ariketa auzoetara eta herritarrengana hurbiltzeko.

Jarraian 2024an zehar martxan jarritako proiektuen eta horiek jasotako emaitzen inguruko informazioa ikusi ahalko duzue sektorez sektore.

elikadura

Hernaniko lehen sektoreko balio kate osoak elkar hartu du Hernaniko elikadura sistema iraunkor eta burujabea martxan jartzeko, Hernaniar guztien elikatzeko eskubidea bermatze aldera, hainbat agente parte hartzen ari dira dinamika honetan: HENASE (Nekazal abeltzainen sustapenerako elkarte), Herrilur (tokiko produktuen kontsumoa sustatzeko elkarte), Bertatik (tokiko elikagaiak prestatu eta eraldatzen dituen gizarteratze eta laneratze enpresa), Berriak (Hernaniko merkataria eta ostalarien elkarte) eta Hernaniko Udala.

nekazal sektorearen diagnostikoa

Lehen sektoreko diagnostikoan 37 ekoizleek hartu dute parte. Lehen sektoreko aktibitatearen bat martxan dutenen heren bat 65 urtetik gorakoek osatzen dute, eta erdiak 40 eta 65 urte artekoak dira. Soilik %19 dira 40 urtetik beherakoak. Horrez gain, jardueraren jarraipenaren arazoa islatzen du diagnostikoak: baserrien %45ek ez du oinordekotzarik bermatuta.

Hernani Burujaberaren estrategietako bat da tokiko elikaduraren burujabetza sustatzea. Hernani Burujaberaren berri duten lehen sektoreko kideak erdiak dira, eta elikadura mahaian egiten ari den lanari balioa emateaz gain, interes gehien non ikusten duten ere erantzun dute: %40k Bertatik Elikatuz transformazio zentroa jo dute interes handienekotzat. %23,2k, berriz, Herrilur salmenta zentroa. %17k inbertsioetarako laguntzekin agertu dute interes gehien, eta %10ek, berriz, Henase nekazarien kooperatibarekin. %6k elikadura mahaia eman dezakeen aholkularitza jo dute beharrezkoen, eta %3k nekazaritza eskola.

lurra nekazaritzara bideratzeko pausuak

Osinagako nekazal lurren berrantolamendurako Plan Berezia martxan jarri da. Plan Bereziaren bidez lurrok babestu eta elikadura strategiaren baitako esku hartze publikoa egin ahal izatea ahalbidetuko da.

nekazal eskola

Bi edizio egin dira 2022z geroztik: Emaitzak guztira:

- 15 parte hartzaile
- 2 pertsonen erregularizazioa (1 errotze soziala; 1 errotze formatiboa) lortu dira.
- 3 aurre-kontratu
- 8 kontratazio, 6 pertsona laneratuta.

transformazio zentroa

Transformazio zentroaren jarduera kontsolidatu da.

7 lanposturekin funtzionatzen du zentroak (horietatik 4 intsertzio lanpostuak dira).

Hernaniko ekoizleei transformatutako kopuruak:

2.000 kg kalabaza, 234 kg azelga, 42 kg porru, 260 kg tomate, 35 kg Berenjena.

4895,58 kg behi haragi; 3205,45 kg behi eta txekor haragi (Gipuzkoa), 10.010,44 kg oilasko eta txerri

haragia 1084,30 kg

Merkaturatze bide desberdinak martxan jarri eta egonkortu ditu.

banaketa zerbitzua

Banaketa zerbitzua erabili duten ekoizle kopurua: 9

Banaketa zerbitzua erabiliko duten bezero kopurua: 19

Egindako banaketa zerbitzuen kopurua guztira: 213

Banaketa zerbitzu kolektiboak egindako km kopurua: 1828

tokiko produktuaren komertzializazioa

Herrilur kontsumo elkarteak salmenta puntu berri bat martxan jartzeko ahalegina egin du

Karabelekon

HENASE-k saldutako produktu kopurua HerriLurren: 11560 produktu. Saldutakoaren %15-a.

HENASE-k HerriLurren saldutakoa eurotan: 25.579,77 €. Saldutakoaren %12.



elikadura

elikaduraren balio kate osoan eragin, bertako eta kalitatezko produktua herritar guztientzako eskuragarri bilakatu

gobernu ekosistema

Sektoreko mahaia funtzionamendu eta osaketa egokia du

Sektorearen plan estrategikoa dago eta eguneratuta dago

Hernani Burujabeko koordinazio eta gobernu espazioetan sektoreko ordezkari dago



plan estrategikoaren jarraipena

Nekazaritza ustiaketa / HENASE-ko kideak

37 ustiaketa
8 kide

Herrilur fakturazio totala / Bertako produktua

270.000€
% 45

Transformazio gunearen fakturazioa / Bertako produktua

303.899 €
% 40

tokiko garapen burujabea

Aurrekontua

434.000 €

Langile kopurua

10

Herritar bazkideak

150

zehir lerroak

Erabiltzen diren hizkuntzak

euskara

Emakumeen parte hartzea mahaia sektorialean

%57

Inserzio sozio-laboraleko langileak Laneratze kopurua

4
3

energia

Energia burujabetzaren bidez, helburua da herritarren bizi kalitaterako oinarrizkoa den energia jasotzeko eskubidea bermatzea eta trantsizio energetiko eta ekologiko justu bat bideratzea.

autokontsumo kolektiboko ekoizpen proiektuak

Zubipeko 56 kw instalazioa martxan jarri da , 82 familiari energia berriztagarria eskainiz.

Berriztagarrietatik lortutako kWh: 41.333

Ibaiondo Poligonoan: Bertatik eta Izarre enpresetako teilatuan instalazioak martxan jarri dira: 92,65 kW

10 merkatarri, enpresa 1 eta 100 etxebizitza hornituko dira.

Hilerriko instalazioaren proiektua garatu da: 50 KW

Galarretako Volvoko instalakuntza: Instalakuntza egiteko diru laguntza jaso da eta Enherkom Iberdrolaren baimenaren zain dago ekoitziko den KW kopurua banatu ahal izateko.

energia bulegoa

Energia Bulegoa Hernani Burujabek trantsizio energetikoa gauzatzeko ezinbestekoa baliabidea da. Bere helburua da hiritarren kontsumoa eta faktura murriztea, beti ere,

hiritarren behar energetikoa bermatuz. Horretarako aholkularitza zerbitzua eskaintzen da, zeinetan, hiritarren energia beharrak identifikatu eta horiek asetzeko aholkuak ematen diren.

2024-ean Energia bulegoan 385 pertsona artatu dira.

Goiz Eguzkin 49 pertsona artatu dira.

eraginkortasun energetikoa eta CO2 isurien murrizketa enpresetan

Enpresen eraginkortasun energetikoa azkartzeko aholkularitza eskaini du Enherkomek. 10 merkatarik parte hartu dute.

Eginiko kontratuen egokitzapenei esker 18.032,71€ko aurrezpen bat lortu dute, hau da, %23,95ko aurrezpen bat lortu da.

2 enpresetan egin dira azterketak. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, isurien konpentsaziorako proiektu bat diseinatu dute (Anziola).



energia

herriek, komunitateek eta herrialdeek beren energia eta lurralde politika propioak definitzeko eskubidea da, modu ekologikoki, sozialki, ekonomikoki eta kulturalki egokiak erabiliz

gobernu ekosistema

Sektoreko mahaiak funtzionamendu eta osaketa egokia du

Sektorearen plan estrategikoa dago eta eguneratuta dago

Hernani Burujabeko koordinazio eta gobernu espazioetan sektoreko ordezkariak dago



plan estrategikoaren jarraipena

Instalatutako KW kopurua

93

Energia aurrezpena

300.000 €

Artatutako pertsona kopurua

385

tokiko garapen burujabea

Aurrekontua

45.000 €

Langile kopurua

2

Herritar bazkideak

285

zehar lerroak

Erabiltzen diren hizkuntzak

euskara

Emakumeen parte hartzea mahai sektorialean

%15

Pobrezia energetikoan zeuden eta zerbitzua eskaini zaien familia kopurua

-

zaintza

Zaintzen krisi bat bizi duen gizartea gabela ulertuta, zaintzen demokratizaziorako estrategia abiatu da, tokiko zaintza sistema publiko komunitarioan ardatzuta. Haren helburua da zaintzarako eskubide unibertsala bermatzea eta zaintza lanen banaketa justu bat egitea, zaintzaileen aitortza eta haien lanaren duintzea lortzeko.

eltzekoak

Zaintzak lantzeko talde herritarra sortu eta egonkortu da. Talde horren helburua da Zaintzen Demokratizaziorako herri estrategiaren gidaritza egitea zaintzaren sektorean lanean diharduten edota interesa daukaten eragile eta norbanakoak elkartuz eta egituratuz. Eltzekadak ekimenak antolatu dira Eltzekoa, Auzozaintza eta auzo elkarte desberdinen artean. Komunitatea indartu, zaintza erdigunean jarri eta auzo-zaintza programaren zabalpena egin da.

etxez etxeko zerbitzua

udalak eskaintzen duen etxez etxeko zaintza zerbitzuaren kudeaketa berreskuratzea da herriko zaintza strategiaren helburu eta erronka nagusietako bat. Horretarako azkeneko urteotan hainbat ekimen egin dira. Nagusia zerbitzuaren esleipenerako baldintzak aldatzea izan da, langileen lan-baldintza modu nabarian hobetuz eta zerbitzua kudeatzen duen enpresa mota aldatzeko baldintzak ezarri. Egun langileen baldintzak hobetzea lortu da: lan kontratuak homogeneousatu dira eta langileen lan-orduak handitu dira lanpostuaren baldintzak nabarmenki hobetuz. Gainera langileei fisio zerbitzua eta laguntza psikologikoa

eskaintzen hasi zaie. Datu esanguratsu bat da Ereñotzu bezalako landa-auzoetan (landa auzoetan zaintza zerbitzuak eskaintzea dituen zailtasunak kontutan edukiz) zerbitzu kopurua eta honi lotutako asebetetze maila igo egin direla.

auozaintza

Auzozaintza bakardade egoera ez desiratuan dauden adineko pertsonen laguntza eta akonpainamendu sistema publiko-komunitarioa eskaintzea helburu duen zerbitzua da. Zerbitzuaren helburua da bakardade egoeran dauden pertsonen bersozializaziorako aukerak eta baliabideak eskaintzea. Horretarako gauzatzen ari garen akonpainamendu ereduak anitzak dira. Batetik, banakako laguntza sistema dago, zeinetan Zabalduz eta Maite Laneko bidelagunek bakardade egoeran dagoen pertsonak laguntzen dituen etxetik ateratzeko eta herrian egiten diren dinamiketan parte hartzeko. Bestetik, bidelaguntza kolektiboak daude, zeinetan, bakardade egoeran dauden pertsona ugari biltzen diren eta beraien arteko sareak ehundu eta dinamikak sustatzen diren. Akonpainamendu kolektibo horiek gainera auzo auzo egiten dira eta auzoetako bizitza soziala berraktibatzeaz gain pertsona horien sareak berrehuntzen dira.

3 auzoetan hasi zena Hernani osora hedatu da, eta egun, 86 dira zerbitzuan zuzenean parte hartzen duten pertsonak, 4 dira telefonozko laguntza jasotzen dutenak,. Guzira 3000 orduetik gorako bidelaguntza zerbitzua eskaintzen delarik.



zaintza

zaintzen demokratizazioa bilatuko duen zaintza sistema eraiki eta zaintza lanak eskaintzen dituzten lagileen lan baldintzak duintzeko prozesua

gobernu ekosistema

Sektoreko mahaiak funtzionamendu eta osaketa egokia du

Sektorearen plan estrategikoa dago eta eguneratuta dago

Hernani Burujabeko koordinazio eta gobernu espazioetan sektoreko ordezkariak dago



plan estrategikoaren jarraipena

Auzozaintzan parte hartzen duten pertsona kopurua (era pertsonalean / telefonoz)

86
4

Bidelagun kopurua/
Auzo kopurua

13
7

Ekimen komunitarioak
Sentsibilizazio ekimenak

5
5

tokiko garapen burujabea

Aurrekontua

200.000 €

Langile kopurua

15

Herritar bazkideak

-

zehir lerroak

Erabiltzen diren hizkuntzak

euskara

Emakumeen parte hartzea mahai sektorialean

%57

Inserzio sozio-laboraleko langileak

-

moneta

Tokiko merkataritza sustatzeko eta indartzeko helburuarekin bertako moneta propioa martxan jarri du Hernani Burujabek. Ekhi. Horren bidez, ordainketa sare propio bat dute eskura hernaniarrak eta parte hartzen duten eragile ekonomiko eta merkatariek.

merkataritza implementazioa

Erabiltzaileak: 128 saltoki 1420 bezero

Masa monetarioa: 181.432 €

Salmentak: 2.808.195 €

Salmentak dendarien artean: 251.236 €

Eragiketa kopurua guztira: 120.835

Udalak emandako hobariak: 1501.0185 €

Dendariak emandako hobariak : 53.866€

Ekhilur Kooperatibaren bazkide kopurua: 700

moneta beste sektoreetara zabaldu

Ekhi merkataritzaren sektorean lortu duen ezarpen maila oso handia bada ere, aurretik duen erronka beste sektoreetara zabaltzea da. Horretarako, software berria garatzen hasi da. Software horren bitartez, erakunde eta enpresa desberdinetan ordainketak Ekhi sistemaren bitartez burutu ahal izango dira. Modu honetan, esaterako, udalak kobratzen dituen tasak eta eskaintzen dituen diru laguntzak ordainketa sistema honen bidez egin ahal izango ditu. Bestetik, software berri horrek ere ahalbidetuko du Hernani Burujabeko gainontzeko sektoreetan ematen diren transakzio ekonomikoak ordainketa sistema horren bidez egitea eta modu horretan sektoretako balio kateen artikulazioan sakonduko da.



bioaniztasuna

herri lurrak eta bioaniztasuna berreskuratzeko politika publiko-konmunitarioak

gobernu ekosistema

Sektoreko mahaiak funtzionamendu eta osaketa egokia du

Sektorearen plan estrategikoa dago eta eguneratuta dago

Hernani Burujabeko koordinazio eta gobernu espazioetan sektoreko ordezkariak dago



plan estrategikoaren jarraipena

Bioaniztasuna sustatzeko proiektu kopurua

Ereindako hazi kopurua
Aldatutako zuhaitz kopurua

Sentsibilizazio ekimen eta auzolan kopurua

1

500
600

12
3

tokiko garapen burujabea

Aurrekontua

5.000 €

Herritar bazkideak

-

Bolondresak auzolanetan

-

zehar lerroak

Erabiltzen diren hizkuntzak

euskara

Emakumeen parte hartzea mahai sektorialean

%33

Inserzio sozio-laboraleko langileak

-

bioaniztasuna

Agerikoa da egungo sistema kapitalistak naturan eragiten duen kaltea. Mundu mailako krisi larrien testigu dira gure inguruko bazterrak ere, eta, besteak beste, baso ustiaketa intentsiboak eta bioaniztasunaren galerak ekarri duten errealitatea.

Herri lurak izan direnak galdu egin dira merkatu logiken eta kapital pribatuaren intereserako. Hortik etorri dira, esate baterako, biodibertsitatearentzat guztiz kaltegarriak diren espezieen landaketa masiboa: intsinis pinua eta, azken urteotan, eukalipto. Herri lur horiek eta biodibertsitatea berreskuratzeko prozesu bat martxan jarri du Hernani Burujabek, elkarlan publiko-komunitarioaren bidez.

baso lurren publikakazioa

Basoen kudeaketa industrialak galarazi eta bertako landaredia nagusitzeko ezinbetsekoa da lurraren jabetza iraultzea eta beraien jabetza publiko eta komunalera aldatzea. Bide horretan pausuak ematen hasi gara eta Udalak 69 hektarea baso-lur erosi ditu udalak Katamotzarrin.

mintegia

Bertako haziak ereiteko prozesua jarri da martxan: 3000 hazi baino gehiago ernalduta dira Burujabetzen Etxean kokatu den mintegian eta hainbat landaketa saio egin dira gure basoetako landaredia bertako espezieekin osatzeko helburuz.

ave maria parkea

Ave Maria parkearen berregituratze prozesuaren baitan Urmaelaren diseinua egin eta modu parte hartzailean gauzatzeko prozesuan dago. Horrela herriko eskoletako haurren parte hartze zuzena sustatzen duen prozesua abiatu da, zeinetan haurrak beraiek diren urmaela

gauzatzeko zereginetan dabilzanak. Gune hau ere naturaren eta bioaniztasunaren inguruko eskolak eta hezkuntza prozesuak egiteko espazioa izatea aurreikusten da.

etxeberriko lur saila

Ekimen honetan Hernani Burujabeko hainbat sektore aritu dira elkarlanean. Energia sektorean diharduen Enherkom-em herriko enpresen CO2 isurien azterketa egin du eta isuri horiek konpentsatzeko Gipuzkoako For Aldundiko Natur Kliman parte hartzeko aholkularitza eman die. Etxeberriko lur sail honetarako Sagarretak duen proiektua Natur Kliman aurkeztu zuen udalak, eta herriko enpresen isurien konpentsaziorako egindako ordainketak lursail honen atontze eta prestaketa lanetara bideratu dira. Modu honetan 2025ean zehar proiektua bukatu eta lur saila herritarrei ireki ahal izatea aurreikusten da.

bioaniztasunaren astea

Sagarreta eta Udalak 2024ko Bioaniztasun Astea antolatu dute elkarlanean.

hezkuntza zentroak

Hernaniko eskola guzietako haur hezkuntzako ikasleekin natur eta bioaniztasunaren inguruko formakuntzak eman dira Burujabetzen Etxean Sagarretaren eskutik.



ekhi

ekimenean parte hartzen dutenen arteko zirkuitu ekonomiko itxia sortzea, ahalik eta herritar gehienak barnebilduz

gobernu ekosistema

Sektoreko mahaiak funtzionamendu eta osaketa egokia du

Sektorearen plan estrategikoa dago eta eguneratuta dago

Hernani Burujabeko koordinazio eta gobernu espazioetan sektoreko ordezkariak dago



plan estrategikoaren jarraipena

Erabiltzaile kopurua / Bazkide kopurua

1548

Masa monetarioa

181.432€

Udalak emandako hobariak / Meraktariek emandako hobariak

151.185€
53.866€

tokiko garapen burujabea

Aurrekontua

190.017 €

Langile kopurua

1,5

Bazkide kopurua

747

zehar lerroak

Erabiltzen diren hizkuntzak

euskara
gaztelera

Emakumeen parte hartzea mahai sektorialean

%57

Elkartegintzara bideratutako ekarpenak

-



gobernu ekosistema

antolaketa marko orokorra

Hernani Burujabe erakunde publiko, ehun ekonomiko eta ehun herritar-komunitarioaren arteko elkarlanean oinarritzen da eta gobernu ekosistema berritzaile eta parte hartzailea garatzen ari da.

Gobernu ekosistema horren oinarrian mahai sektorialak daude, zeinetan, udal ordezkari politiko eta teknikoak eta sektore bakoitzeko eragile herritar eta ekonomikoek parte hartzen duten.

Garrantzitsua da azpimarratzea ere Bidea Burujabetzen Aldeko Herritarren taldearen papera: herritarren parte-hartzea bideratzeko elkarte da eta Hernani Burujabe prozesuan bi funtzio nagusi betetzen ditu: batetik, Hernani Burujaberaren baitan garatzen diren ekimenetan herritarren parte hartzea sustatu eta bideratzea du xede, eta bestetik, Hernani Burujaberaren baitan gauzatzen ari garen planifikazio ekonomiko demokratikoa izateko ezinbestekoa duen herritarren parte hartzea sustatu eta bideratzea. Horretarako planifikazio prozesuan sektore bakoitzeko auzoek zein elkarteek dituzten behar eta eskaintzen dituzten aukerak identifikatzeko espazioak sortzen eta bideratzen dituzte urtean behin egitea aurreikusten den auzo-batzar eta elkarte-batzarren bidez.

2024an, Burujabetzen kontseilua funtzionatzen hasi da ere. Bertan Hernani Burujabe osatzen duten eragile desberdinen ordezkariak batzen dira prozesuaren erabaki estrategikoak hartu eta gida-lerro nagusiak ezartzeko.

Ondoren azalduko dira Gobernu ekosistemari dagokionez 2024an emandako aurrera-pausu nagusiak.

mahaiak sektorialak

Mahai horietan burutu da sektore bakoitzaren burujabetza prozesuaren plangintza eta dinamizazioa. Urte hasieran mahai bakoitzak bere plan sektoriala adostu zuen, sektorea osatzen duen balio-kate guztian esku-hartzeko proiektuak zehaztuz, aurreko proiektuen jarraipena eta zuzendaritza estrategikoa ezarriz eta kudeaketa plana adostuz. Mahai sektorial bakoitza, hilabetean behin bildu izan da. Mahai sektorialetan sektore guztietako balio katea osatzen duten eragile ekonomiko eta sozialen ordezkariak eta udalaren ordezkariak, hau da, sail bakoitzeko zinegotzi eta teknikari arduradunek hartu dute parte.

burujabetzen kontseilua

Hernaniko Trantsizio ekosozialerako prozesuari, Hernani Burujaberi, norabide estrategiko komuna eman dio Burujabetzen Kontseiluak: dimentsio publikoa, dimentsio ekonomikoa eta dimentsio herritarra organikoki lotzen. Planifikazio prozesu publiko-komunitarioa burutzeko gobernu organo gorena izan da. Udalaren, elkartearen, eragileen eta herritarren ahalduztzeko eta elkarlanerako gune bat izan da, lankidetzako planifikazioan sakontzeko. Planifikazioaz gain, Burujabetzen Kontseilua Hernani Burujaberaren norabideari dagozkion erabakiak hartzeko espazioa izango da, betiere, Hernani Burujabeko eragile eta erakundearen autonomia errespetatuz. Bertan parte hartu dute udaleko bi ordezkari gain, sektore bakoitzeko ordezkari bana, sektoreetan diharduten eragile ekonomikoen bidez (Maitelan, EHkom, Ekhillur, Henase, Herrilur, Enherkom eta Sagarreta) eta Bidea Burujabetzen Aldeko Herritarren Elkarteko bi ordezkariak. 2024an zehar lau aldiz elkartu da Burujabetzen Kontseilua.

planifikazio prozesua

Planifikazio prozesuari dagokionez, bizitza posible egiten duten sektore estrategikoak herritarren beharrak asebetetzera bideratuko dituen bide-orri bat zela esaten genuen. Beraz planifikazio prozesuarekin sektore estrategikoak tokiko mailatik antolatu ditugu, berlokalizazioa izanez oinarri, justizia soziala, iraunkortasuna eta parekidetasuna ardatz hartuta eta ahalik eta modu demokratikoenean eta partekatuenean.

Planifikazio prozesuaren dinamizazioa Bidea Burujabetzen Aldeko Herritarren Taldeak burutu du; auzoetako elkarte eta gainontzeko eragileekin harremanak egin eta auzo batzarrak antolatuz, proiektuaren herritartzea eta proiektuaren lurraldetzea bilatuz. Auzoetako batzarretan (Ikusi Auzo Biraren emaitzen laburpena), bertako elkarte eta herritarrekin egin dira saioak; auzoetako behar eta lehentasunak zeintzuk izango diren detektatuz.

Auzoetako batzarrak egin ondoren, Burujabetzen Kontseiluaren batzarra deitu zen, eta auzoetan eta eragileekin egindako bileretan jasotako irizpideak sektoreekin partekatu ziren.

Irizpide horiekin, ikuspegi territorial eta sozialak sektore bakoitzaren plan sektorialean txertatu dira eta planteatuta zeuden proiektuak irizpide horien arabera ber-formulatzeko ahalegina egin da.

Horretarako, sektoreetako batzarrak egin dira. Ondoren, batzar sektorialeko planak bilduz, Hernaniko Plangintza Estrategiko integrala osatu da eta urteko azken Burujabetzen Kontseiluan, 2025ko ekintza plana eta aurrekontuak proposatu eta onartu dira. Hori kontuan izanda zehaztu dugu sektore eta proiektu bakoitzari esleitu zaion diru eta baliabide kopurua. Planifikazio prozesuan zehar adostu diren proiektuak gauzatzeko, Hernaniko udalak bere aurrekontuetan txertatu ditu diru kopuru horiek.

Azkenik, Burujabetzen Batzarrean Hernani Burujabe osatzen duten sektore eta eragile guztietako partaideek hartuko dute parte. Udal ordezkariak eta herriko eragileak gonbidatuak izango dira ere. Bertan aurreko urteko memoria aurkeztu eta hurrengo urterako helburuak eta planifikazio prozesuaren emaitzak aurkeztuko dira.

burujabetza komunikatuz

2024a Hernani Burujabeko komunikazioa berrantolatzeko eta egokitzeko urtea izan dela esan genezake. Hernani Burujabeko eragileek eurek hartu dute bere gain proiektuari lotuta egiten diren ekitaldi eta ekimenak komunikatzeko eta gizarteratzeko ardura. Horretarako, Hernani Burujaberaren euskarri komunikatibo nagusia sortu da, hau da webgunea, eta bere bidez jakinarazten dira aurrera eramaten diren ekimen inportanteenak.

Horrez gain, udaberrian kanpaina zabal bat martxan jarri zen, helburu garbi batekin: Hernani Burujaberi buruzko informazioa eguneratzea eta haren berri hernaniarren gehiagorengana iristea bermatzeko.

Aipatutako komunikazio kanpaina horren barruan, 4.000 aleko gehigarri informatibo bat zabaldu zen Kronikaren bidez, eta sektoreen inguruko publizitate eta informazio euskarriekin hornitu ziren herriko hainbat markesina eta minipuntu. Burujabetzen herrian bizi gara lelopean, bideo eta bestelako euskarriak zabaldu ziren webgune eta sare sozialen bidez. Gaur egun X, Telegram eta Facebooken zabaltzen dira Hernani Burujaberaren inguruko berriak.

Hainbat agerraldi eta komunikazio egin dira urtean zehar. Haietako nagusia, aipatutako kanpainari lotuta, apirilean egin zen. Horrez gain, sektorez sektore hainbat agerraldi eta komunikazio egin dira. Luze joango litzateke denak aipatzea, baina adibide moduan bi aipatuko ditugu: energia sektorearen lehen eguzki instalazioa martxan jarri zenean Zubipen, eta Zaintza Sektorean Auzozaintzari buruz EHUko hainbat ikertzailek egindako ikerketaren emaitzak aurkeztu zirenean.

Hernani Burujaben eragile askotarikoak ari dira lanean, eta haiek denek euskarri berdinekin lan egiteko eta elkarren berri edukitzeko kanalak sortu dira, esate baterako, hernaniburujabe.eus domeinua. Gaur egun, eratuta dauden sektoreek, komunikazioak eta koordinazioak domeinu hori erabiltzen dute elkarri edo gizarteari mezuak helarazteko.

Hurrengo urteko erronka nagusia da aurten martxan jarri den lan egiteko sistema hau sendotzea eta hobetzea. Hernani Burujabek egiten dituen askotariko ekimenen inguruan informatzen jarraitzea, haren irismena ere gero eta handiagoa izan dadin



aurrera begira

Hemen jasotakoa, bidearen hasiera besterik ez da izan. Justizia soziala, jasangarritasuna eta berdintasunaren bidean, asko dago egiteke oraindik. Hurrengo urteotako erronka nagusia Hernani Burujabe zabaltzea izango da, Hernaniar

ahalik eta gehien inplikazioa lortu eta eguneroko bizitzak bizigarriago egitea; eskala txikian marraztutako proiektua hedatzea eta Hernanitik, Euskal Herritik, mundu hobeera irazteko gure ahaletxoak jartzen jarraitzea.



hernani
burujabe